



OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA
PASEALEKUETAKO ZUHAZTIEN GARBITASUNA, ZAINKETA ETA MANTENTZE-ZERBITZUA
PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia, espedientean zehaztutakoekin bat etorritik, Oiartzungo udalerrian dauden berdegune, parke, lorategi eta pasealekuetako zuhaitzien garbitasuna, zainketa, eta mantentze zerbitzua ematea da, eta, orokorrean, hurrengoak egitea, preskripzio teknikoaren pleguetan zehaztutako eremuetan, moduan, maiztasunarekin eta baldintzetan:

- o Berdegune publiko guztien kontserbazio egokia.
- o Soropilen kontserbazio, garbiketa, sega eta sasi kentzea.
- o Bide bazterren garbiketa, sega eta sasi kentzea.
- o Hormen garbiketa eta sasi kentzea.
- o Heskai edo palaxuen kontserbazioa eta inausketa edo kimaketa.
- o Zuhaitzen kontserbazio eta inausketa edo kimaketa.
- o Zuhaitzak egoera onean mantentzea.
- o Lorontziak garbitu eta landareak mantentzea.
- o Sortzen diren hondakin guztiak bildu eta garraiatzea.
- o Egoera txarrean dauden landare, zuhaitzak eta zuhaitzak kentzea.
- o Birjartzeak.
- o Lorategi berriak egitea.
- o Zuhaitzen landaketa eta birlandaketa.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 77311000

2. ZERBITZUAK EMATEKO EPEA

Zerbitzua emateko epea 2 urte izango da. Kontratuaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egun baliodunetik hasita kontatuko da epe hori.

Zerbitzua epe horretan ematen ez bada, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

Nolanahi ere, kontratua luzatu ahal izango da bi alderdiak luzapenarekin ados egotekotan, eta betiere, luzapenak 2 urte iraun ahal izango du gehienez ere.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa lehenengo urterako **172.000 €** izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete, eta BEZari dagokion zenbatekoa zehaztu beharko dute.



Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

Lanen ordainketa hileroko egingo da onartzen diren fakturen arabera, eta eginiko lanek adostasuna lortu badute.

4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Bestaldek, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaitan eskumena duen organoak.

5. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira. Berraztertze hori bat dator Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 77 eta 82 bitarteko artikuluetan eta lege hori garatzen duen Araudi Orokorraren 104 eta 106 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin.

Prezioaren berraztertzea Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) igoeraren %85a aplikatuko da.

6. BERMEAK

a) Behin-behineko Bermea.- Lizitatzailerik behin-behineko bermea jarri behar dute lizitazio honetan parte hartzeko; berme hori kontratuaren prezioaren %3 izango da, beraz, 4.230 €, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 91.3. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez jarriko dute.

Esku-dirutan ordaindu nahi izanez gero, Kutzako 2101 0060 00 00000 89367 kontu-zenbakian sartu beharko da.

Esleipena egin eta gero itzuliko da behin-behineko bermea.

Lizitatzailerik guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo proposamenik ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerik esleipena bere alde egin ahal izateko behin betiko bermerik jartzen ez badu. Horrelakoetan bermea betearaziko da.



b) Behin betiko bermea: Proposamenik ekonomikoki onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleak esleipeneko zenbatekoaren % 5eko bermea, BEZ gabe, jarri beharko du bere konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Horretarako, behin-behineko bermea osatu ahal izango du edo berme berria jarri.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamar egun baliodunekoa izango da, bere proposamena ekonomikoki onuragarriena dela jakinarazi, zentzu horretan errekerimendua egin eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Behin betiko bermearen bitartez honako alderdi hauek ziurtatuko dira: kontratuan jasotzen diren eginkizunak egoki egitea; Administrazioari sortutako kalteak, kontratistak bere betebeharrak berandu betetzeagatik; kontratua egikaritzean Administrazioari eragindako kalteak, edo kontratua ez betetzeagatik eragindako gastuak, kontratua etetea egoki ez denean; kontratistari ezarritako zigorrak; kontratua eteten denena agindu daitekeen konfiskatzea.

Baldin eta Administrazioa bermeaz baliatzen bada gorago zehaztutako kasuetarako, bermea berehala osatu edo jarri behar da berriro, eta borondatez hala egiten ez bada horretarako emandako epean, hurrengo ziurtapena egiten denean kendu egingo da dagokion kopurua.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

7. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskarpen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Bestalde, larrialdi egoeratan plegu teknikoetan jasotakoa beteko da.

Esleipendunak plegu teknikoek langileria, materiala, lanabesak eta ibilgailuekiko ezartzen dituzten obligazio eta baldintza guztiak bete beharko ditu.



8. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu, eta horiek betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Zehazki, Laneko Arriskuen Prebentziori buruzko azaroaren 8ko 31/1995 legean xedaturiko betekizun guztiak bete beharko ditu, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 errege Dekretua, eta Laneko Segurtasun eta Osasunarekin zerikusia duen gainerako legeria.

9. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da zerbitzu-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 284.c) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Udalak plegu teknikoetan aipatutako eremuak egun dauden egoeran kontratatuko ditu, denborak eta zaintzak eragingo dituen hobekuntzekin. Udal ardura-eremua handituko duten obra berri, handitze, urbanizazio harrera edo edozein motatako jabetzeengatik egiten diren parke berri, berdegune eta zuhaitz-lerroak jasotzera derrigortuta egongo da esleipenduna, esleitutako beste eremuen baldintza berdinetan, horrela erabakitzen badu Udalak nolanahikoa dela, eta prezio berdinean, baina, betiere, eremua handitzeak plegu teknikoetan zehazten diren eremu guztien azaleran % 8a baino gehiago suposatzen ez badu.

Ehuneko hori gaitutako balitz, handitzen den azaleraren proportzioa aplikatuko zaio aurrekontuari, beste baldintza tekniko eta administratiboak bere horretan mantenez.

Era berean, plegu teknikoetan zehazten diren egin beharreko lanak murrizten badira, adibidez, urbanizazioa egin ez delako, obrak direlako edo beste arrazoiengatik, egiten ez diren lanak esleitutako aurrekontutik kendu egingo dira, esleipendunak eskaintzan jarritako prezioetan, betiere azaleran % 8a baino gehiago suposatzen badu.

11. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA



Zerbitzua eman eta, gehienez, hilabete bat pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera egingo da.

Gainera, urte bateko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, esleipenduna izango da erantzulea.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

12. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

- Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko zerbitzuak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo zerbitzuak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

- Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala betetzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

- Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

- Baliabide materialekiko eta giza baliabideekiko egiten den eskakizuna ez betetzekotan, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren %10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du edo kontratua amaitu.

- Gainera, hurrengoak ere hutsegiteak izango dira, oso larri, larri edo arintzat joko direlarik:

1.- Hutsegite oso larriak izango dira:

- Zerbitzuak argi eta garbi irregulartasunez eta gaizki betetzea.
- Zerbitzuaren zati bat edo osoa esleipenduna ez den beste pertsonen gauzatzea.



- Oiartzungo Udalak zerbitzuen ordena, erregimena eta betetzeko moduaren inguruan emandako agindu ofizialak ez betetzea, eta, oro har, prestazioa xedatzen duten arauak.
- Lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Higiene gaietan indarrean dauden legezko betebeharrak ez betetzea.
- Oiartzungo udalari ikuskaritza eta zainketa lanak egiten ez uztea edo eragozpenak jartzea.
- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.
- Oiartzungo Udalaren aginduz, berehalako edo aparteko garbiketa eskatzen duten egoeren berri izandakoan, berehala ez jardutea.

2.- Hutsegite larriak izango dira:

- Enpresa esleipenduneko langileek auzo-lagunekin liskarrak izatea.
- Enpresaren kudeaketarekin lotutako dokumentazioa faltsutzea.
- Oiartzungo Udalak eskaturiko laneko parte eta txostenak garaiz ez aurkeztea edo osatu gabe aurkeztea, Oiartzungo Udalak zerbitzuaren kudeaketa kontrolatzeko emandako tresna informatikoak oker erabiltzea, antzemandako gabeziak ez jakinaraztea, eta eskaturiko informazioa ez ematea edo emandakoa egiazkoa ez izatea.
- Ordutegian sistematikoki atzerapenak izatea, ezarritako bitartekoak ez erabiltzea, tresna mekanikoak gaizki zaintzea.
- Zerbitzua prestatzeko beharrezko diren segurtasun gailuak ez erabiltzea.
- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea.

3.- Hutsegite arinak izango dira:

- Aurreikusi ez diren arren lizitazio honen pleguetan ezarritako baldintzak nolabait kaltetzen dituztenak, lanak larriki kaltetzen ez dituztenak, edota langileen edo erabilitako bitartekoetan hutsegiteak eragin dituztenak.

Aurreko hutsegiteak direla-eta, Oiartzungo Udalak hurrengo zehapenak ezarri ahal izango dizkio esleipendunari:

- a.- Hutsegite oso larriren bat egiteagatik, 1.500,01 € eta 3.000 € arteko isunak.
- b.- Hutsegite larriren bat egiteagatik, 600,01 € eta 1.500 € arteko isunak, hutsegite larriak behin eta berriro egiteagatik dagozkion isunen kalterik gabe.
- c.- Hutsegite arinen bat egiteagatik, ohartarazpena edota 600 € arteko isunak, hutsegite arinak behin eta berriro egiteagatik dagozkion isunen kalterik gabe.

Alkatea izango da hutsegite arin eta larrietan zehapenak ezarriko dituen, eta Udal Osoa hutsegite oso larrietan.

Zehapena ezartzen duen akordioa exekutiboa izango da eta zehapen ekonomikoen zenbatekoa, esleipendunari hileroko ordaindu beharreko fakturatik edo behin betiko bermetik kenduko da.



13. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 284. artikuluetan azaltzen direnak izango dira, eta plegu hauetan zehaztutakoak.

14. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

15. EUSKARA

Enpresa esleipendunak herritarrekin zuzeneko harremanean egin beharreko lana burutzeko izendatzen dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak euskaraz egiteko eta nahitaez egiaztatu beharko dute hizkuntz gaitasuna. Hizkuntz gaitasun hori 48/2009 Dekretuan zehazten diren agirien bidez nahiz berariaz udalak egindako azterketa bidez egiaztatuko da.

Hizkuntz gaitasuna egiaztaturiko langileren bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak hemen xedatutako hizkuntz gaitasuna izan beharko du. Zentzu honetan, langile berriekin ere aurretik zehaztu den prozedura bera jarraituko da.

Enpresa esleipendunak udalaren hizkuntz jarduera arautzeko planen arabera jokatu du.

Beraz, zerbitzua ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatuko ditu. Hots, enpresa esleipendunaren langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu jasoleak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskara hutsez emango ditu ezagutzera. Salbuespen modura, ele biz argitaratu ahal izango da; betiere, euskara lehenetsita eta udalak alde aurretik adostasuna emanda.

Enpresa esleipendunak udalarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango ditu.

Hizkuntz betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio baina kontratazioa eragin duen udal lantsailaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio organoaren eskutan jartzea. Hizkuntz betebeharrak horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko

16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena jardunbide ireki bidez egingo da, 30/2007 Legearen 141. artikularekin eta hurrengoekin adostasunena, eta izapidetza arrunta.

Kontratuaren esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko, **gehienez ere, 100 puntu lortu ahal izango direlarik:**

1.- Eskaintza ekonomikoa: **55 puntu** emango dira gehienez ere irizpide honengatik. Lizitazio prezioa 172.000 (BEZ barne) izanik, batez besteko eskaintzaren zenbatekoa kalkulatu da. Zenbateko hori %15 gutxitu (batez besteko eskaintza x 0,85) eta emaitzaren balio osoa baino eskaintza merkeagoak egongo balira, 0 puntu emango zaie kontzeptu horrengatik. Puntuaziorik altuena, 55 puntu, emango zaio batez besteko eskaintza %15 gutxitu ez dutenen arteko eskaintza merkeenari eta ez zaio punturik emango lizitazioaren prezioari egokitu zaion eskaintzari. Bi balio horien artean proportzionalki estrapolatu da gainerako eskaintzen puntuazioa.

2.- Hobekuntzak: **15 puntu** emango dira gehienez ere irizpide honengatik. Kontuan hartuko da, udalarentzat aparteko prestazio ekonomikorik suposatutako gabe, lizitatuzaileek ekonomikoki balioztatu dituztenak, eta bere onarpenak eskaintzaren zerbitzuaren kalitatea hobetzeko bistako interesa duenean.

Ez da onartuko, inolaz ere, hobekuntza gisa, kontzeptu honen kontura lanak erabat gauzatzea, pleguetan derrigorrezko bezala azaltzen diren lanak edo eginbeharrak, eta soilik onartuko dira halakotzat plegu honetan derrigorrezkoak direnak osatzera edo hobetzera bideratutako jarduketak, baina inoiz ez ordezkatzera bideratutakoak.

3.- Lanak gauzatzeko plangintza: **15 puntu** emango dira gehienez ere irizpide honengatik. Horretarako, preskripzio teknikoen pleguetan adierazitakoaren arabera, kontratuan sartzen diren lanei buruzko antolakuntza eta gauzatzeko proposamena baloratuko da.

4.- Makinaria eta Langileria: **15 puntu** emango dira gehienez ere irizpide honengatik. Lanetara bideratutako langileriaren eta lan-talde bakoitzari jarritako makinaria, ibilgailu eta lanabesen balorazioa egingo da. Horretarako, hurrengoak hartuko dira kontuan: izendatutako langileriaren azalpen xehatua, kualitatiboa eta kuantitatiboa; kontratua burutzeko langile tekniko arduradunen prestakuntza eta esperientzia adierazten duen egiaztagiria; organigramak, txandak, izendaturiko lan-eremuak, langileekiko politika; makinaria, ibilgailu eta lanabesen proposamena eta tresna bakoitza eskuratu zeneko azalpen zehatza.



17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzekeo debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzekeo gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: OIartzungo Udala, Done Eztebe plaza1.

ORDUAK: 08 : 00 - 14: 30

EPEA: Egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, **15 egun naturaleko epean**, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, eta honako webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.oartzun.org.

Baldintza-agiriak eta horien dokumentazio osagarria eskatzen duten eskaintzaileei bidaliko zaizkie, eskaera hori jaso eta sei eguneko epean, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

Baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ondoko webgunean eskuratu ahal izango da: www.oartzun.org.

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 142.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA PASEALEKUETAKO ZUHAZTIEN GARBITASUNA, ZAINKETA ETA MANTENTZE-ZERBITZUA KONTRATAZEKO LEHIAKETA IREKI BIDEZ PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"

- 1) "A" KARTAZALA. "KONTRATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA".
- 2) "B" KARTAZALA. "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK".
- 3) "C" KARTAZALA. "BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK"

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Hiru kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

1.- "A" KARTAZALA ("KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA").- Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lizitatzzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lizitatzzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

c) Lizitatzailleak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatzailleak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lizitatzailleek **O Taldean, 6. Azpitaldean, B Kategorian** klasifikatuta daudela egiaztatu beharko dute. Enpresa klasifikazioaren zain balego, klasifikazio hori eskatu duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, baina, beti ere, klasifikazioa lortu duela egiaztatu beharko du akatsak zuzendu edo hutsuneak betetzeko emandako epean.

f) Gainera, lizitatzailleen gaitasun tekniko eta profesionala frogatzeko hurrengoak aurkeztu beharko dituzte:

- Azken hiru urteetan egin dituzten oraingoaren antzeko zerbitzuak, zenbatekoa, datak eta hartzailea zehaztuz, hartzaileak emandako ziurtagiriekin frogatu beharko delarik.

g) Hainbat enpresak lizitaziora jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldekik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

h) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzailleari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

i) Egin beharreko lanen zehaztapen-txostena.

j) Jakinarazpenak egiteko helbidea eta korreo elektronikoa.

k) Esleipenarekiko lehentasunaz baliatu nahi badute, %2ko ezintasuna baino gehiago duten langileak dituela ziurtatzen duten agiriak.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako



egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

2) **“B” KARTAZALA (“PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK”)**.- Kartazal honetan hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da, hain zuzen ere, “Eskaintza ekonomikoa”ri dagokiona.

- a) Banakako prezioen zerrenda.
- b) Honako eredu honen arabera

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

..... kontratatze asmozk dei egindako negoziazio bidezko kontratazioan parte hartze gonbita jaso dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:

2) Arau teknikoen agiria, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudak enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

3) **“ C” KARTAZALA (BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK)**.- Plegu honetako 16. klausulan zehaztutako esleipen-irizpideetatik



balorazio iritzi baten gai izan behar duten irizpideak egiaztatzen dituzten agiriak.; hain zuzen ere, “ Hobekuntzak”, “Lanak gauzatzeko plangintza” eta “ Makinaria eta Langileria” izenekoan aurkeztu beharrekoak.

Edozein kasutan, ezingo dira “C” kartazalean sartu proposamen ekonomikoa edo formula bidez baloratu daitezkeen irizpideak, “B” kartazalean sartu behar direnak. Datu horietako edozein “C” kartazalean sartuz gero, lizitatzailerak prozedura honetatik kanpo geratuko da eta ez da “B” kartazala irekiko.

Era berean, ezingo dira sartu “B” kartazalean balorazio iritzi baten gai izan behar duten irizpideak, “C” kartazalean sartu behar direnak. Datu horietako edozein “B” kartazalean sartuz gero, ez dira baloratuko agiriok, eta balorazio iritzi baten gai izan behar duten irizpideak baloratuko dira soilik.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

19. KONTRATAZIO-MAHAIA

Oiartzungo Udalaren Kontratazio-Mahai iraunkorra izango da. Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko, Mahaiak hala eskatzen badiu.

20. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian “A” kartazala sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Illo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiete, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki ohean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun baldioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.



Aurkeztutako proposamenak ("B" eta "C" kartazalak) irekitzeko Kontratazio Mahaiak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 83. artikuluan eta hurrengoetan eta 30/2007 Legea partzialki garatzen duen 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideen balioestea balorazio iritzi baten gai izan behar dutenena eta gero egingo da, eta hori dela eta, Mahaiak automatikoki kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideei buruzko "C" Kartazala (BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK) jendaurrean irekiko du, "A" kartazala ireki eta hurrengo zazpi egunetan. Horretarako lekua, eguna eta ordua kontratatzailearen profilean agertuko dira. Ondoren, aurkeztutako dokumentazioa zerbitzu teknikoei emango zaie dagokion balorazioa egin dezaten.

Aurrekoa egin eta gero, proposamenen "B" kartazala (PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK) irekiko du Mahaiak, kontratatzailearen profilean argitaratuko den leku, egun eta orduan. Egintza horretan emango da jakitera balorazio iritzi baten gai izan diren irizpideen balioestea.

Hurrengo egunetan, teknikariek proposamenak balioetsi, ebaluatu eta sailkatzeari ekingo diote, eta Kontratazio-Mahaiari txostena emango diote klasifikazio-proposamena aurkeztu diezaion kontratazio-organoari.

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

Kontratazio-organoak hoberenetik behera klasifikatuko ditu aurkeztutako proposamenak. Klasifikazioa pleguetan zehaztutako esleipen- irizpideen arabera egingo du.

Horiek horrela, errekerimendua egingo zaio ekonomikoki proposamenik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hurrengoak egin ditzan:

- a) Egiaztagiria aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- c) Behin betiko bermea jarri.
- d) Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza aurkeztu, 300.000 €ko gutxieneko kapitalarekin.

Esleipena bost egun balioduneko epean egin beharko da, goian aipatutako a), b) eta c) puntuetan adierazitakoak bete eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aitzitik, beteko ez



balitu, bere eskaintza erretiratzeko duela ulertuko da, eta beraz, aipatu dokumentazioa eskatuko zaio klasifikazioaren ordenan hurrengo de lizitatzailerari.

SPKLaren 139.2. artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, esleipenak eragindako gastuak ezarriko ditu Administrazioak, entzunaldia eginez eta behar bezala ziurtatuz.

Edozein kasutan, kaudimen teknika egiaztatzerakoan %2ko ezintasuna baino gehiago duten langileak dituela ziurtatzen duten lizitatzaileren alde egingo da esleipena, beti ere, beren proposamenak esleipen-irizpideen arabera onuragarrienak direnak berdintzen baditu. Proposamenik onuragarrienean berdinketa lortu duten lizitatzailerekin %2ko ezintasuna baino gehiago duten langileak dituela ziurtatu badute, ezintasun hori duten langile gehiago dituenaren alde egingo da esleipena.

Esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean ondorengoak bete beharko ditu:

- a) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- b) AEBa eratzeko eskriturak hala dagokionean.
- c) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

23. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko



ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko baldintza administratiboen plegu hau **Oiartzungo Udal Osoak** onartu duela 2010.10.27an egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

IDAZKARIAK